



**ITSASOA, ONDAREA ETA EUSKARA.  
ENRIKE LEKUONA IKERKETA BEKA. OINARRIAK**

**MAR, PATRIMONIO Y EUSKERA.  
BECA DE INVESTIGACION ENRIKE LEKUONA.  
BASES**

**ENRIKE LEKUONA I. IKERKETA BEKA**

**"Itsasoa, Ondarea eta Euskara. Enrike Lekuona Ikerketa beka"**

**Enrike Lekuona beka deialdiaren araudia**

**I BECA DE INVESTIGACIÓN ENRIKE LEKUONA**

**"Mar, Patrimonio y Euskera. Beca de Investigación Enrike Lekuona"**

**Reglamento de la convocatoria de becas Enrike Lekuona**

Hondarribiko Udalak, 2019ko urriaren 30eko osoko bilkuran hartutako erabakiaren bidez, "Itsasoa, ondarea eta euskara. Enrike Lekuona", ikerketa beka sortu du euskarazko ikerketa sustatzeko eta euskaltzale, itsas ingeniari eta ikertzaile hondarribiarrari omenaldia egiteko.

Hondarribiko ARMA PLAZA Fundazioak, erabaki horren bidez, bere gain hartu du "Itsasoa, Ondarea eta Euskara. Enrike Lekuona Ikerketa beka" bekaren deialdia. Hondarribiarra den itsaso-ingeniariaren, euskaltzalearen eta ikertzailearen omenez ikerketa bekaren deialdia egiten da. Alabaina, hura omentzeaz harago, bekaren asmoa ezagumendua zabaltzea eta Hondarribiaren garapena sustatzea da.

Hondarribia itsas hiria da, arrantzale herria. Itsasoak eta itsasadarrak, Txingudi, berebiziko garrantzia izan dute Hondarribia hiriaren bilakabidean. Hiru eremu nagusi berezi ditugu: itsasoa, ondarea eta euskara.

**Itsasoa.** Itsasoak berebiziko garrantzia izan du hondarribiarrentzat, aspalditik, oso aspalditik; balearen ehiza, arrantza, ontzigintza, ontziolak, itsas merkataritza eta abar luzea. Hamaika jarduera eta ogibide, horietako asko galduta. Eremu honetan, tamalez, jakituria

El Ayuntamiento de Hondarribia ha creado, en acuerdo plenario de 30 de octubre de 2019, la beca de investigación "Mar, patrimonio y euskara. Enrike Lekuona" para fomentar la investigación en euskera y homenajear al *euskaltzale*, ingeniero naval e investigador hondarribiarra.

La Fundación ARMA PLAZA de la ciudad de Hondarribia, por dicho acuerdo, asume la convocatoria de la beca "**Mar, Patrimonio y Euskera. Beca de Investigación Enrike Lekuona**". Se convoca en honor al ingeniero naval, *euskaltzale* e investigador hondarribiarra Enrike Lekuona. Sin embargo, más allá de homenajear a Enrike Lekuona, el objetivo de la beca es ampliar el conocimiento y promover el desarrollo de Hondarribia.

Hondarribia es una ciudad marítima, un pueblo pesquero. El mar y la bahía de Txingudi han tenido una gran importancia en el devenir de Hondarribia. Tenemos tres campos principales: el mar, el patrimonio y el euskera.

**Mar.** El mar ha tenido una gran importancia para los hondarribiarras desde hace mucho tiempo: la caza de la ballena, la pesca, la construcción naval, los astilleros, el comercio marítimo, etc. Infinidad de actividades y profesiones, muchas de ellas, perdidas. En este campo, lamentablemente,



galtzen ari gara.

estamos perdiendo conocimiento.

**Ondarea.** Historiaurretik gizakiaren presentziaren aztarnak dituzten euskal leku bakanetako bat da Hondarribia. Harrezkero eta gaur egun arte, lurralde honek gogor bizi izan ditu bere aldi kronologiko guztiak, ondare aberastasun apartarekin.

Horregatik, beharrezkoa da gure arbasoen bizitzari, jantziei, ohiturei, tresnei eta trepetei buruzko azterlanak ikertu eta zabaltzea. Zer esan sinesmen, dantza, janari, joko eta bestelakoez. Beraz, asko dago bildu, sailkatu, aztertu eta, batez ere, erakusteko.

**Euskara.** Txingudi itsasadarraren bazterrean, Pirinio mendilerroko Kantauriko abiaburua, bi estatu indartsuen arteko muga. Hondarribia kultura eta hizkuntza askoren arragoa izan da, eta, aldi berean, euskararen lurraldeen ernamuina izan da. Euskara bizi-bizi aldatzen ari. Beharrezkoa da jasotzea Hondarribiko euskalkia, balioestea eta zabaltzea.

Beka deialdi bakoitzean, aipatu eremu zabal horietatik atal bat proposatuko dugu. Egindako ikerketa eta azterlanekin, esan moduan, gure hiria, bizimodua, kultura, hizkuntza eta herria hobeto ezagutzea espero dugu.

Beka hauen ikerketa esparruak Enrike Lekuonak bere bizitzan landutako honako hauek dira:

1. **Itsasoa:** arrantza, itsasoa, itsaso-ondarea eta itsas emakume-gizonen bizimodua.
2. **Euskal kultura eta kultura ondarea.**

**Patrimonio.** Hondarribia se cuenta entre los escasos lugares vascos donde se han conservado huellas de presencia humana desde época prehistórica. Desde entonces hasta nuestros días, este territorio ha vivido intensamente todos sus periodos cronológicos con una riqueza patrimonial que la hacen excepcional.

Por ello, es necesario fomentar la investigación y divulgación de los estudios sobre la vida de nuestros antepasados, su indumentaria, sus costumbres y sus utensilios. Qué decir de las creencias, bailes, comidas, juegos y otros. Por lo tanto, hay mucho que recoger, clasificar, analizar y, sobre todo, divulgar.

**Euskera.** A orillas de la bahía de Txingudi, punto de partida del Cantábrico de la sierra de los Pirineos, límite entre dos potentes estados, Hondarribia ha sido un crisol de muchas culturas y lenguas, a la vez que ha sido el germen de los territorios del euskera. El euskera está cambiando rápido. Es necesario recoger el dialecto de Hondarribia, valorarlo y difundirlo.

En cada una de las convocatorias de becas se propondrá un apartado de los grandes campos mencionados. Con las investigaciones y estudios realizados esperamos conseguir un mejor conocimiento de nuestra ciudad, de nuestro modo de vida, de nuestra cultura, de nuestra lengua y de nuestro pueblo.

Los campos de investigación de estas becas, trabajados por Enrique Lekuona en su vida, son los siguientes,:

1. **El mar:** la pesca, el mar, el patrimonio marítimo y la vida de los hombres y de las mujeres del mar.
2. **La cultura y el patrimonio cultural vasco.**



### 3. Euskara.

#### 1. BEKAREN EZAUGARRIAK

- 1.1. Proiektua, azterlana eta memoria euskaraz egongo dira.
- 1.2. Bekaren iraunaldia, gehienez, 18 hilabetekoa izango da, beka esleitzen den egunetik hasita.
- 1.3. Bekaren diru zenbatekoa 10.000 €-koa izango da.
- 1.4. Ikerketa-lanak originala eta argitaratu gabea izan behar du.

#### 2. ESKATZAILEAK

- 2.1. Beka norbanakoek nahiz horretarako propio eraturako lantaldeek jaso ahal izango dute. Lantaldeen kasu horretan, ikerketaren zuzendari arduradun bat izendatu behar da.
- 2.2. Beka jaso ahal izateko ezinbestekoa da graduatua edo goi mailako tituludun izatea. Taldeen kasuan, gutxienez erdiak bete beharko du baldintza hori.
- 2.3. Eskatzaileek euren euskarako gaitasuna egiaztatu beharko dute EGA tituluaren edo horren baliokidea den ziurtagiri bidez (\*). Lantaldeen kasuan, parte hartzaileen erdiak gutxienez egiaztatu beharko du euskararako gaitasuna.

(\*) Kontuan izan, 47/2012 Dekretua, apirilaren 3koa, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzenetik salbuesteko dena; eta 297/2010 Dekretua, azaroaren 9koa, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko bateratuko mailekin parekatzen dituen.

### 3. Euskera.

#### 1. CARACTERÍSTICAS DE LA BECA

- 1.1. El proyecto, el estudio y la memoria estarán en euskera.
- 1.2. La duración máxima de la beca será de 18 meses desde la fecha de adjudicación de la beca.
- 1.3. La cuantía de la beca será de 10.000 €.
- 1.4. El trabajo de investigación debe ser original e inédito.

#### 2. SOLICITANTES

- 2.1. La beca podrá ser percibida tanto por personas individuales como por grupos de trabajo constituidos al efecto. En el caso de los grupos de trabajo, se debe nombrar un director responsable de la investigación.
- 2.2. Para poder optar a la beca es necesario estar graduado o titulado superior. En el caso de los grupos, al menos la mitad deberá cumplir este requisito.
- 2.3. Los solicitantes deberán acreditar su aptitud para el euskera mediante título o certificado de EGA o equivalente (\*). En el caso de los grupos de trabajo, al menos la mitad de los participantes, deben acreditar su competencia en euskera.

(\*) Tener en cuenta el Decreto 47/2012, de 3 de abril, de reconocimiento de los estudios oficiales realizados en euskera y de exención de la acreditación del nivel de euskera mediante títulos y certificados lingüísticos, y el Decreto 297/2010, de 9 de noviembre, de convalidación de títulos y certificados acreditativos de conocimientos de euskera y equiparación con los niveles del Marco Común Europeo de Referencia para las Lenguas.



### 3. ESKABIDEEN AURKEZPENA

Beka eskuratzeko eskaerak, ondorengo dokumentazioa bildu behar du:

3.1. Enrike Lekuona Beka eskatzeko orria, I. eranskina beteta.

3.2. Ikertzaile arduradunaren espediente akademiko zehaztua eta osatua; lantaldeen kasuan partaide guztiek aurkeztu beharko dute espediente akademikoa (II. eranskina).

3.3. Eskatzaileak duen banku-kontuaren titularitatearen frogagiria, eskaera egin duen pertsonaren identitatearekin bat datorrena. Ondoko dokumentu hauetatik edozeinek balio dezake: bankuko laburpenak, aurrezki libretak, banketxeak igorritako ziurtagiria edo "titular kontua" izeneko orria behar bezala beteta banketxeak emandako zigiluarekin (III. eranskina).

3.4. Eskatzaileak zerga alorreko betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bete izanaren frogagiria, Ogasun Sailak eta Gizarte Segurantzako Diruzaintzak emana, hurrenez hurren. Lantaldeen kasuan, parte hartzaile guztienak.

3.5. Erantzukizuneko aitortpena, eskatzaileak dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten dion zehapen administratiborik edo penalik ez duela eta horretarako ezgaitzen duen legezko debekurik ez duela egiaztatzen duena (IV. eranskina).

3.6. Erantzukizuneko aitortpena, edozein administrazio publikotatik edo erakunde publiko edo pribatutatik xede eta helburu bererako dirulaguntzarik, laguntzarik, bekarik, diru sarrerarik edo errekurtsorik eskatu ez dela edo jaso ez dela dioena (IV. eranskina).

### 3. PRESENTACION DE LAS SOLICITUDES

La solicitud de la beca deberá contener la siguiente documentación:

3.1. Solicitud de la Beca Enrike Lekuona, debiendo cumplimentar el anexo I

3.2 Expediente académico detallado y completo de la persona investigadora responsable, que en el caso de los grupos de trabajo deberán presentar todos los participantes (anexo II).

3.3 Justificante de la titularidad de la cuenta bancaria de la que dispone el solicitante, que se corresponde con la identidad de la persona solicitante. Puede valer cualquiera de los siguientes documentos: resúmenes bancarios, libretas de ahorro, certificado librado por la entidad bancaria o hoja "cuenta de titular" debidamente cumplimentada con el sello de la entidad bancaria (anexo III).

3.4 Justificante del cumplimiento de las obligaciones tributarias y de la Seguridad Social expedido por el Departamento de Hacienda y por la Tesorería de la Seguridad Social, respectivamente. En el caso de los grupos de trabajo, de todos los participantes.

3.5. Declaración responsable que acredite que la/s persona/s solicitante/s no se encuentran sancionadas penal ni administrativamente con la pérdida de la posibilidad de obtención de subvenciones o ayudas públicas ni se hallan incurso en prohibición legal alguna que las inhabilite para ello (anexo IV).

3.6. Declaración responsable de no haber solicitado o no haber sido concedida ninguna subvención, ayuda, beca, ingreso o recurso para el mismo objeto y finalidad procedente de cualquier Administración Pública o Entes públicos o privados (anexo IV).



3.7. Erantzukizuneko aitorpena, dirulaguntzak itzultzeko betebeharretan egunean daudela dioena (IV. eranskina).

3.8. Erantzukizuneko aitorpena, eskabidean jasotako datuak egiazkoak direla eta betebeharrak betetzen dituela dioena (IV. eranskina).

3.9. Eskatzaileek euren euskarako gaitasuna egiaztatu beharko dute EGA tituluaren edo horren baliokidea den ziurtagiri bidez. Lantaldeen kasuan, parte hartzaileen erdiak gutxienez egiaztatu beharko du euskararako gaitasuna.

3.10. Ikerketa gaiaren eta lan metodologiaren deskribapena, ahalik eta zehatzena (gehienez ere 15 orrialde edo 4.500 hitz), honako hau adieraziz:

- Ikerketa lanaren esparrua.
- Aurrekariak eta gaiaren egungo egoera.
- Ikertzailearen edo taldearen esperientzia.
- Helburuak.
- Materiala, baliabideak eta lan metodologia.
- Lanaren garapen kronograma.

#### 4. ESKAERAK AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEA

Dokumentazioa honako leku hauetan aurkeztu behar da:

- Aurrez aurre, ARMA PLAZA fundazioaren bulegoan (Pampinot kalea, 16) Hondarribia (20280), [www.armaplaza.eus](http://www.armaplaza.eus) webgunean argitaratutako deialdian adierazitako eguna eta ordua.
- E-mailez, [armaplaza@armaplaza.eus](mailto:armaplaza@armaplaza.eus) helbidean, [www.armaplaza.eus](http://www.armaplaza.eus) webgunean argitaratutako deialdian adierazitako eguna

3.7. Declaración responsable de que están al corriente de las obligaciones por reintegro de subvenciones (anexo IV).

3.8. Declaración responsable de que son ciertos los datos contenidos en la solicitud y documentación que le acompaña y que cumple con las obligaciones (anexo IV).

3.9. Las personas solicitantes deberán acreditar su aptitud para el euskera mediante título EGA o certificado equivalente. En el caso de los grupos de trabajo, al menos la mitad de los participantes deben acreditar su competencia en euskera.

3.10 Descripción del tema de investigación y metodología de trabajo, lo más detallado posible (máximo 15 páginas o 4.500 palabras), indicando:

- Ámbito del trabajo de investigación
- Antecedentes y situación actual del tema.
  - Experiencia del investigador/a o del grupo.
- Objetivos.
- Material, recursos y metodología de trabajo.
- Cronograma de desarrollo del trabajo.

#### 4. LUGAR Y PLAZO DE PRESENTACION DE LAS SOLICITUDES

La documentación se debe presentar en:

- Presencialmente, en la oficina de la Fundación ARMA PLAZA, sita en calle Pampinot 16. Hondarribia (20280) el día y hora que se refleje en la convocatoria publicada en [www.armaplaza.eus](http://www.armaplaza.eus)
- Por email en la dirección [armaplaza@armaplaza.eus](mailto:armaplaza@armaplaza.eus) el día y hora que se refleje en la convocatoria publicada en





eta ordua.

[www.armacplaza.eus](http://www.armacplaza.eus)

- Postaz. Posta bulegoetan aurkeztutako eskabideak ARMA PLAZA Fundaziora zuzenduko dira, gutun-azal irekian, Posta Zerbitzuko funtzionarioak data eta zigilua jar diezazkion dokumentazioa aurkezteko epearen barruan ziurtatu aurretik. Kasu horretan bakarrik ulertuko da instantziak Posta Bulegoan entregatu ziren egunean sartu direla ARMA PLAZA Fundazioko bulegoan.

Eskaerak aurkezteko epea hilabetekoa izango da. Deialdia [www.armacplaza.eus](http://www.armacplaza.eus) webgunean argitaratuko da.

Pertsonak edo lantaldeak aurkeztutako dokumentazioa osatu gabe dagoela edo oinarri hauetan eskatutako baldintzak ez dituela betetzen egiaztatzen bada, interesdunari 3 eguneko epea emango zaio dokumentazio hori zuzentzeko edo nahitaezko agiriak aurkezteko. Hala egiten ez badu, eskaeran atzera egin duela ulertuko da.

## 5. ESLEIPEN PROZEDURA

Beka hau ARMA PLAZA Fundazioaren Patronatuak esleituko du, Ebaluazio Batzordearen proposamena jaso ondoren.

Proposamen hori aipaturiko batzorde horrek epaitutako merezimendu lehiaketaren emaitzan oinarrituko da.

Erabakia aurkeztu diren guztiei jakinaraziko zaie.

Aurkezten diren eskaerak aztertu eta ebaluatzeko, Ebaluazio batzordea eratuko da, honako hauek osatua:

- Por correo. Las instancias presentadas en las Oficinas de Correos, se dirigirán a la Fundación ARMA PLAZA, en sobre abierto para ser fechadas y selladas por el funcionario de Correos antes de ser certificadas dentro del plazo de presentación de la documentación. Sólo en este caso se entenderá que las instancias han tenido entrada en la oficina de la Fundación ARMA PLAZA en la fecha en que fueron entregadas en la Oficina de Correos.

El plazo de presentación de las solicitudes será de 1 mes. La convocatoria se publicará en la página web [www.armacplaza.eus](http://www.armacplaza.eus).

Si se comprobase que la documentación presentada por la persona o grupo de trabajo está incompleta o no reúne los requisitos exigidos en las presentes bases, se requerirá para que en el plazo de 3 días subsane la misma o acompañe los documentos preceptivos. Si no lo hiciera, se le tendrá por desistido de su petición.

## 5. PROCEDIMIENTO DE ADJUDICACIÓN

Esta beca será adjudicada por el Patronato de la Fundación ARMA PLAZA, una vez recibida la propuesta de la Comisión de Evaluación.

Esta propuesta estará basada en el resultado de un concurso de méritos juzgado por dicha Comisión.

El acuerdo se notificará a todos los que se hayan presentado.

Para el análisis y evaluación de las solicitudes presentadas se constituirá una Comisión de Evaluación compuesta por:



Batzordeburua: ARMA PLAZA Fundazioko burua.

Presidente: Presidente de la Fundación ARMA PLAZA.

Batzordekideak:

Vocales:

✓ Enrike Lekuonaren familiakoek izendatutako ordezkaria.

✓ Representante designado por los familiares de Enrike Lekuona.

✓ 2 Aranzadi Zientzia Elkartearen ordezkaria.

✓ 2 Representantes de la Sociedad de Ciencias Aranzadi

Idazkaria: ARMA PLAZA Fundazioko koordinatzailea edo aholkulari juridikoa.

Secretaría: coordinador/a de la Fundación ARMA PLAZA o asesor/a jurídico/a.

Horiez gain, Batzordeak hala erabakiko balu, aurkeztutako gaien inguruko pertsona adituen laguntza eta aholkularitza eskatu ahal izango du hark.

Además, si así lo decidiera la Comisión, ésta podrá recabar la colaboración y asesoramiento de personas expertas en los temas presentados.

Eskatzaileek aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, Ebaluazio Batzordeak informazio osagarria eskatu dezake edo/eta hautagai batzuk proiektua defendatzera dei ditzake.

Una vez analizada la documentación aportada por los solicitantes, la Comisión de Evaluación podrá solicitar información complementaria y/o convocar a varios candidatos a la defensa del proyecto.

Ebaluazio Batzordearen esleipen proposamena ARMA PLAZA Fundazioaren Patronatuari igorriko zaio. Organo horrek berariazko ebazpena emango du, hartan jasota emandako proiektua eta ukatutakoak, bai eta, hala badagokio, ordezkoak ere, edo deialdia bete gabe utziko du. Hartutako erabakia banaka jakinaraziko zaio onuradunari edo onuradunen taldeari, posta elektronikoz edo posta bidez. Halaber, emandako beken zerrenda [www.armacplaza.eus](http://www.armacplaza.eus) webgunean argitaratuko da, orok horren berri izan dezan.

La propuesta de adjudicación de la Comisión de Evaluación, será elevada al Patronato de la Fundación ARMA PLAZA. Este dictará resolución expresa que recogerá el proyecto concedido y los denegados, así como, en su caso, suplentes o declarará desierta la convocatoria. La resolución adoptada será notificada individualmente a la persona o grupo de personas beneficiarias, por vía electrónica o postal. Asimismo, a efectos de general conocimiento, la relación de las becas concedidas será publicada en la página web [www.armacplaza.eus](http://www.armacplaza.eus)

## 6. HAUTAGAIK AUKERATZEA ETA BALORATZEKO IRIZPIDEAK

## 6. SELECCION DE CANDIDATURAS Y CRITERIOS DE VALORACION

Ebaluazio batzordeak honako hauek baloratuko ditu: bekaren xede den gaiarekin zerikusia duten ikerketa lanak egiteko taldeko eskatzailearen edo eskatzaileen ezagutzak, prestakuntza eta esperientzia, bai eta dituen edo

La Comisión de Evaluación valorará los conocimientos, formación y experiencia de la persona o personas solicitantes del grupo en la realización de trabajos de investigación relacionados con el tema objeto de la beca



dituzten zehazteko eta adierazteko gaitasuna, bekaren xede den lanean aritzeko aukerak, eta ikerketa lanaren proposamenaren interesa eta ikuspegia ere. Horretarako, Hautaketa batzordeak balorazio irizpide hauek hartuko ditu kontuan, bakoitzari emandako puntuazioaren arabera:

- Eskatzaileen espediente akademikoa eta curriculum (0 – 10 puntu).
- Ikerketa proiektuaren interesa, zuzentasuna eta balio zientifikoa, originaltasuna eta bideragarritasuna (0 – 30 puntu).
- Hondarribiarekin zuzeneko lotura duen gaia izatea (0 – 10 puntu).

#### **Puntuazioa:**

Eskatzailearen puntuazioa, Ebaluazio Batzordeko kide bakoitzaren puntuak gehitu eta batez bestekoa izango da. Batzorde horretako kide guztiek dute hitz egiteko eta puntuazioa jartzeko eskubidea.

Puntu gehien duenari esleituko zaio beka eta horrek hartuko ez balu, hurrengoari proposatuko zaio.

Berdinketak jarraitzen badu, ordena zozketaz egingo litzateke.

Epaimahaiak bekarik ez emateko proposamena egin dezake, lanen kalitatea nahikoa ez dela uste badu.

## **7. BEKADUNEN BETEBEHARRAK**

7.1. Lanaren garapenari buruz (egindakoa eta egiteko dagoena), aurkeztutako proiektuaren araberako txosten bat bidaltzea bekaren lehen 9 hilabeteak igarotakoan.

solicida, así como su capacidad de concreción y expresión, sus posibilidades de dedicación al trabajo objeto de la beca y el interés y enfoque de la propuesta del trabajo de investigación. Para ello, la Comisión de Evaluación tendrá en cuenta, atendiendo a la puntuación asignada a cada uno de ellos, los siguientes criterios de valoración:

- Expediente académico de las personas solicitantes y su curriculum (0 – 10 puntos).
- Interés, corrección y valor científico del proyecto de investigación, originalidad y viabilidad (0 – 30 puntos).
- Que se trate de una materia que tenga relación directa con Hondarribia (0 – 10 puntos).

#### **Puntuación:**

La puntuación de la persona solicitante será la media de la suma de los puntos adjudicados por cada miembro de la Comisión de Evaluación. Todos los miembros de dicha Comisión tienen el derecho de opinar y adjudicar puntos.

La beca se adjudicará a quien tenga mayor puntuación. En el caso de renuncia se le propondrá al siguiente.

Si persistiera el empate, el orden se realizaría por sorteo.

La comisión podrá proponer declarar la beca desierta si considera insuficiente la calidad de los trabajos.

## **7. OBLIGACIONES DE LOS/LAS BECARIOS/AS**

7.1. Remitir un informe sobre el desarrollo del trabajo (realizado y pendiente de realizar) en función del proyecto presentado una vez transcurridos los 9 primeros meses de la concesión de la beca.





- 7.2. Aurreikusitako planaren edo lantaldearen osaketaren aldaketen berri ematea. Halakorik ezin daiteke egin ARMA PLAZA Fundazioaren baimenik gabe.
- 7.2. Informar de los cambios en el plan previsto o en la composición del grupo de trabajo. Estos no pueden realizarse sin autorización de la Fundación ARMA PLAZA.
- 7.3. Bekaren 18 hilabeteak igarotakoan memoria (ikerlanaren beraren azken erredakzioa) aurkeztea. Lan horren hiru ale entregatuko dira, paperean eta tarte bikoitzez mekanografiaturik, koerlatiboki orrialdeztatua eta koadernaturik, bai eta formatu digitalean ere.
- 7.3. Presentar la memoria final transcurridos los 18 meses de la concesión de la beca (última redacción del trabajo de investigación). Este trabajo se entregará por triplicado, en soporte papel a doble espacio, correlativamente paginado y encuadernado, así como en formato digital.
- 7.4. Lanaren luzerak 100 eta 300 orrialde artekoa izan beharko du, orrialdeko 30 lerroz eta lerroko 60 idazki-zeinuz, grafikoak, argazkiak eta antzekoak dituzten orrialdeen kasuan izan ezik. Testua ez den elementu oro orrialdeetan zehar edo tokirik ez balego lanaren bukaeran, eranskin gisa, txertatuko da. Era horretako elementu bakoitzak behean bere azalpentxoak beharko du. Edozein kasutan, lanak gutxienez, testuko 100 orrialderen baliokidea izan behar du. Eranskinetako orrialdeak ez dira kontuan hartuko puntu honetan zehaztutako gutxienekoak betetzeko.
- 7.4. La extensión del trabajo deberá ser de entre 100 y 300 páginas, con 30 líneas por página y 60 caracteres por línea, excepto en el caso de páginas con gráficos, fotografías y similares. Todo elemento que no sea texto se insertará a lo largo de las páginas o si no hubiera espacio al final del trabajo como anexo. Los elementos gráficos deberán llevar anotaciones al pie. En todo caso, el trabajo deberá ser, como mínimo, lo equivalente a 100 páginas de texto. Las páginas de los anexos no se tendrán en cuenta para cumplir los mínimos especificados en este punto.
- 7.5. Egileak 30 lerro inguruko laburpena eta edukiaren berri ematen duten deskribatzaileak erantsiko ditu euskaraz gain, gazteleraz, frantsesez eta ingelesez.
- 7.5. El/la autor/a de la memoria deberá incluir un resumen de 30 líneas que recoja el contenido y los descriptores de la memoria en euskera, castellano, francés e inglés.
- 7.6. Bekarako lana bukatutakoan, jendaurrean aurkeztu beharko da, ARMA PLAZA Fundazioak eta Hondarribiko Udalak lanaren egilearekin edo lantaldearekin adostutako egunean eta orduan.
- 7.6. Una vez finalizado el trabajo para la beca, se hará una presentación pública en la fecha y hora acordada con la Fundación ARMA PLAZA y el Ayuntamiento de Hondarribia y con el autor/a o grupo de trabajo.
- 7.7. Ikerlanaren garapenaren txostena edo amaierako memoria entregatzeko azken epea betetzen ez bada edo epaimahaiaren iritziz nahikoa kalitaterik ez badu, justifikazio edo gaintitu ezinezko arrazoirik gabe, oinarri hauen 11. puntu jasotako penalizazioak ezarriko zaizkio irabazleari. Ebaluazio Batzordeak erabakiko du emandako arrazoiak nahikoak
- 7.7. Si hubiera incumplimiento de plazo por parte de la/el becario/o en la presentación del informe del desarrollo del trabajo de investigación o de la memoria final, sin justificación suficiente o razón insalvable, se le aplicarían las penalizaciones recogidas en el punto 11 de estas bases. La Comisión de Evaluación decidirá si la justificación



diren ala ez.

presentada es suficiente.

## 8. ORDAINKETAK

Ordainketa modu honetan egingo da, izapide administratiboak burutu ondoren:

- Kopuru osoaren %40a, beka ematen den une berean, aurreordainketa moduan.
- Kopuru osoaren %40 beka ematen zaionetik 9 hilabetera, betiere Ebaluazio Batzordeak onartzen badu irabazleak edo lantaldeak aurkeztutako bekaren txostena, ordura arte egindako lana jasotzen duena.
- Gainontzeko %20, bekaren bukaeran, lana aurkeztu eta Ebaluazio Batzordeak ontzat eman ondoren.

Lana amaituko ez balitz, bekadunak jasotako diru guztia itzuli beharko lioke udalari. Ikerlanak sor ditzakeen gastuak bekadunaren kontura joango dira.

## 9. LANEN JABETZA ETA JABETZA INTELEKTUALEKO ESKUBIDEAK

Lan horiek jabetza intelektualaren eskubidea arautzen duten arauen esparruan erabiliko dira, indarrean dagoen legerian jasotako moduan.

Lana ustiatzeko eskubideak ARMA PLAZA Fundazioarenak izango dira. Fundazio horrek eskubidea izango du lana osorik eta/edo partzialki erreproduzitzeko edo argitaratzeko, egoki deritzon, bere kontura edo akordio bidez, ahal dela Hondarribiko Udalarekin lankidetzan. Nolanahi ere, egilea edo egileak aipatu beharko dira.

Azken memoria aurkeztu eta bi urteko epean ARMA PLAZA Fundazioak lana argitaratu

## 8. PAGOS

El pago, una vez finalizados los trámites administrativos, se realizará de la siguiente forma:

- El 40% del total, a modo de anticipo, en el mismo momento de la concesión de la beca.
- El 40% del total a los 9 meses de la concesión de la beca, siempre que la Comisión de Evaluación apruebe el informe de la beca presentado por el/la ganador/a o grupo de trabajo que recoja el trabajo realizado hasta la fecha.
- El 20% restante, al finalizar la beca, previa presentación del trabajo y visto bueno de la Comisión de Evaluación.

En caso de que el trabajo no se finalice, la/el becaria/o deberá devolver al Ayuntamiento la totalidad de los fondos percibidos. Los gastos derivados del trabajo de investigación correrán a cargo de la becaria/o.

## 9. PROPIEDAD DE LOS TRABAJOS Y DERECHOS DE PROPIEDAD INTELECTUAL

El uso de los trabajos elaborados se realizará en el marco de las normas que regulan el derecho de propiedad intelectual en los términos recogidos en la legislación vigente.

Los derechos de explotación del trabajo serán de la Fundación ARMA PLAZA que se reserva el derecho de reproducir o publicar, total y/o parcialmente el trabajo cuando lo crea oportuno, por su cuenta o en colaboración mediante acuerdo, preferentemente con el Ayuntamiento de Hondarribia. En todo caso, deberá referirse al autor o autores/as.

Si en el plazo de dos años desde la presentación de la memoria final la Fundación



ez badu, egileak edo egileek material hori erabili ahal izango dute egokien iruditzen zaiena egiteko. Kasu horretan, egileak edo egileek jasotako bekaren aipamena egin beharko dute (bekaren izena eta beka esleitzen duen erakundearen eta haren laguntzaileen izenak adieraziz) eta argitaratutako lanaren 20 ale eman beharko dizkiote ARMA PLAZA Fundazioari. Euskarri digitalean bakarrik argitaratzen bada, dagozkien logotipoak sartu beharko dira.

ARMA PLAZA no ha publicado el trabajo, el/la autor/a o autores/as podrán utilizar dicho material para realizar lo que estimen más adecuado. El autor/a o autores/as deberán entonces hacer referencia a la beca recibida (indicando el nombre de la beca y de la entidad que lo adjudica y sus colaboradores) y entregar a la Fundación ARMA PLAZA 20 ejemplares del trabajo publicado. En el caso de publicarse solo en soporte digital deberá insertar los correspondientes logotipos.

**10. BATERAGARRITASUNA EDO BATERAGARRITASUN EZA HELBURU BERBERERAKO EMANDAKO BESTE DIRULAGUNTZA, LAGUNTZA, DIRU-SARRERA EDO BALIABIDE BATZUEKIN, EDOZEIN ADMINISTRAZIOTIK EDO ERAKUNDE PUBLIKOETATIK ZEIN PRIBATUETATIK ETORRI, ERAKUNDE NAZIOALETATIK, EUROPAKO BATASUNETIK EDO NAZIOARTEKO ERAKUNDEETATIK ETORRI.**

Dirulaguntza hauek bateraezinak izango dira helburu berbererako emandako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin, edozein administraziotatik edo erakunde publikotatik zein pribatutatik, erakunde nazioaletatik, Europako Batasunetik edo nazioarteko erakundeetatik datozela, zeinahi delarik ere jatorria.

## 11. ITZULKETAK ETA ZIGORRAK

11.1. Ikerlanaren garapenaren txostena edo amaierako memoria entregatzeko azken epea bukatu baino lehen eta ARMA PLAZA Fundazioak aurretiaz errekeritu gabe, bekadunak edo lantaldeak bere borondatez saria itzultzen badu, bekadunak edo lantaldeak ordura arte jasotako zenbatekoa eta dagozkion

**10. COMPATIBILIDAD O INCOMPATIBILIDAD CON OTRAS SUBVENCIONES, AYUDAS, INGRESOS O RECURSOS OTORGADOS PARA LA MISMA FINALIDAD, PROCEDENTES DE CUALQUIER ADMINISTRACIÓN O ENTIDAD PÚBLICA O PRIVADA, DE ORGANISMOS NACIONALES, DE LA UNIÓN EUROPEA U ORGANIZACIONES INTERNACIONALES.**

Estas subvenciones serán incompatibles con cualesquiera otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera administraciones o entes tanto públicos como privados, nacionales, de la Unión Europea o de organismos internacionales, cualquiera que sea su procedencia.

## 11. DEVOLUCIONES Y SANCIONES

11.1. En el caso de que la persona perceptora o grupo de trabajo devuelva de forma voluntaria el importe de la beca, antes de la finalización del plazo de entrega del informe o de la memoria final y sin previo requerimiento de la Fundación ARMA PLAZA, el becario/a o equipo de trabajo deberá devolver el principal abono

berandutze interesak itzuli beharko ditu.

11.2. Ikerlanaren garapenaren txostena edo amaierako memoria entregatzeko azken epea bukatuta ARMA PLAZA Fundazioak errekeritu ondoren saria itzultzen denean, bekadunak edo lantaldeak ordura arte jasotako zenbatekoa itzultzeaz eta dagozkion berandutze interesak ordaintzeaz gain, ezarriko zaion zigorrari aurre egin beharko dio. Zigorra ordura arte jasotako diru-sariaren zenbatekoaren adinako isuna izango da.

## 12. ONURADUNEN BETEBEHARRAK.

12.1. Emandako beka onartzea. Ildo horretatik, beka eman zaiola jakinarazten duen jakinarazpena jaso eta hamabost eguneko epean, pertsonak edo lantaldeak bekari espresuki eta idatziz uko egiten ez badio, beka onartutzat joko da.

12.2. Beka zertarako eman den, xede horretarako erabiltzea eta ARMA PLAZA Fundazioari, horretarako prestatuko den egutegiaren arabera, egindako lanaren eta lortutako emaitzen berri ematea. Fundazioak ontzat eman beharko ditu emaitzak.

ARMA PLAZA Fundazioak, Hondarribiko Udalarekin elkarlanean, betebeharrak horietan aurreikusi ez diren gorabeherak konpondu ahal izango ditu. Halaber, beka baliorik gabe utzi ahal izango dute onuradunak betebeharrak horiek betetzeari uzten badio.

## 13. IZAERA PERTSONALEKO DATUEN BABESA

Informazioaren tratamenduak kontuan hartuko du Datu Pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko

más los correspondientes intereses de demora.

11.2. Una vez transcurrido el último plazo para la entrega del informe de desarrollo del trabajo o memoria final, tras ser requerido por la Fundación ARMA PLAZA para la devolución del importe de la beca, el becario/a o grupo de trabajo, además de reintegrar la cantidad percibida hasta ese momento y abonar los intereses de demora correspondientes, deberá hacer frente a la sanción que se le imponga. La sanción será una multa igual al importe de la cantidad recibida hasta este momento.

## 12. OBLIGACIONES DE LAS PERSONAS BENEFICIADAS.

12.1. Aceptar la beca concedida. En este sentido, si en el plazo de quince días tras la fecha de recepción de la comunicación por la que se notifica la concesión de la beca, la persona o grupo de trabajo no renuncian expresamente y por escrito a la misma, se entenderá que ésta queda aceptada.

12.2. Utilizar la beca para el concreto destino para el que ha sido concedida e informar a la Fundación ARMA PLAZA, conforme al calendario que se concretará al efecto, sobre la labor realizada y los resultados obtenidos, los cuales deberán recibir su conformidad o visto bueno.

La Fundación ARMA PLAZA en colaboración con el Ayuntamiento de Hondarribia podrán resolver las incidencias no previstas en estas obligaciones. Asimismo, podrán revocar la beca en el caso de que la persona beneficiaria cesara en el cumplimiento de estas obligaciones.

## 13. PROTECCIÓN DE DATOS DE CARACTER PERSONAL

El tratamiento de la información tendrá en cuenta lo establecido en la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal y Garantía de



# ARMA PLAZA

FUNDAZIOA

abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoa eta aplikagarri diren gainerako xedapenak.

Datu pertsonalen tratamenduak Kultura eta euskara sustatzeko euskarri informatikoa sailari eskaintzea du xede, aintzat hartuta interesatuak emandako baimena eta tratamendu-arduradunari esleitutako ahalordeak, zeinak jasota dauden hurrenez hurren datu pertsonalak eta haien zirkulazio librea dela-eta pertsona fisikoen babesari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 (EB) Araudiaren 6.1 artikuluen a) eta e) letretan.

Tratamenduaren arduraduna: ARMA PLAZA Fundazioa.

**Eskubideak:** Datu pertsonalak eskuratzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko, aurka egiteko eta mugatzeko eskubidea erabil daiteke, ARMA PLAZA Fundazioari zuzendutako idazkiaren bidez (Pampinot kalea 16, 20280 Hondarribia, Gipuzkoa). Bidali behar diren datuak hauek dira: izen-abizenak, jakinarazpenetarako helbidea, eskatzen dena, data, interesdunaren sinadura eta fitxategiaren izena.

Hondarribian 2020ko urrian

Derechos Digitales y demás disposiciones que resulten de aplicación.

El tratamiento de datos de carácter personal tiene por objeto proporcionar al Departamento el soporte informático destinado a la promoción de la cultura y el euskera, teniendo en cuenta la autorización otorgada por el interesado y los poderes atribuidos al responsable del tratamiento, que están recogidos, respectivamente, en los apartados a) y e) del artículo 6.1 del Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo, relativo a la protección de las personas físicas por razón de los datos personales y de su libre circulación.

Responsable del tratamiento: Fundación ARMA PLAZA.

**Derechos:** Se puede ejercer el derecho de acceso, rectificación, cancelación, oposición y limitación de datos personales, mediante escrito dirigido a la Fundación ARMA PLAZA, en calle Pampinot 16, 20280 Hondarribia (Gipuzkoa). Los datos a enviar son los siguientes: nombre y apellidos, domicilio a efectos de notificaciones, lo requerido, fecha, firma del interesado y nombre del fichero.

Hondarribia, octubre de 2020